

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harreman estu eta sendo bat sortzea nahi dugu. Beraz, bezeroekin gardentasunean aritzen gara lanean. Beraien beharrak interpretatu eta soluzioak emanez, guregan konfiantza jartzeko fidagarritasuna eta sinesgarritasuna eskaintzen diegu, epe luzerako harremana eraikitzeko.

Enpresa eta bezeroaren artean harreman egoki bat sortzeko hainbat aukera daude baina guk egokienak iruditzen zaizkigunak aukeratu ditugu, bai bezeroen zein gure enpresaren onerako.

- **Harreman pertsonala:** gure bezeroek aukera edukiko dute denda fisiko batera joateko eta bertan gurekin harreman estu bat sortzeko eta horrela euren zalantzak, beharra argitzeko, produktuaren inguruan informatzeko...Esaterako gure dendak Euskadiko hiru hiriburuetan kokatuko dira hau da Gasteiz, Bilbo eta Donostian.



Batzuetan ez da erraza izaten edo ez dugu denbora asko edukitzen dendara joateko, baina pertsona horientzat ere pentsatu dugu harremana mantentzeko beste modu bat. Ondorengo hau da:

- **Automatizatutako zerbitzuak:** zerbitzu mota honekin gure bezeroek aukera izango dute beraien etxeetatik edo nahi duten lekutik eskaera egiteko. Bi zerbitzu mota eskaintzen ditugu, alde batetik webgune bat sortuko dugu eta bestetik, telefono bidez hitz egin ahal izango dute eta baita eskarea egin:



- **WEBGUNEAK:** hemendik bezeroek gure produktua online eskatzeko aukera izango dute, inora joan gabe eta produktua ere beraiek aukeratutako lekura helduko zaie, honela erosotasuna bermatzen diegu. Webgunean parte hartu ahal izateko hainbat baldintza bete beharko dituzte:

- Web gunean harpidetuta egon beharko dira gure produktua eskuratu ahal izateko.
- Behin harpidetuta egon eta gero beste behin produktua erosi nahi badute ez dira berriro harpidetu beharko, hau da, behin eginda nahikoa izango da nahi beste aldiz egiteko (gainera, beherapen batzuk ere izango dituzte bezero ohikoak baldin badira).

